



ENE LUKAS MAITEA



Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia eta Fernando Aire “Xalbador”.

Bertso honen egilea: Fernando Aire “Xalbador” (1920-1976 Urepele, Nafarroa Beherea).

Bertsoaren berri

“Lukas adixkideari” sorta, eskerrak emateko jarri zuen Xalbadorrek.

“Odolaren mintzoa” liburuan (1976) azaltzen duenez, Lukas Urepeleko herritar bat zen, Ameriketara gazterik joana. Azken aldera bixita batzuk egin zituen Urepelera eta bertsozale beroa zen: Mattin ere ekar arazi izan zuen Urepelera, Xalbadorrekin kanta zezan.

Behin, egonaldi baten ostean, Lukasek Amerikatik dirua igorri zion erretoreari, apaiz etxean bazkaria egin zezaten lau lagunek (tartean zen Xalbador); bazkaldu soilik ez, afaldu arte ez ziren atera apaizarenetik! Lukasi eskerrak bidaltzeko, bertsoak jar zitzala eskatu zioten lagunek Xalbadorri.

Ene Lukas maitea zer bihotza **duzun**
gutaz arta hartzeko izanik hoin **urrun**
beldurtzeko da Euskal Herrian ez **dugun**
zu bezalakotarik bi miletan **ehun**.

